Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileak

Lan hitzarmenaren aldaketa esanguratsuenak

steilas

www.steilas.eus

LANALDIA

	Asteko orduak			Orduen banaketa		Egunean	
	Denera	Permanentziarik gabe	Eskolan Zentroan	A.Z.	L.P.	A.Z.	L.P.
HLE ZHI	35	5	30	25	5	5	1
FISIO. OT	35	5	30	23	7		
GL TRANSKRI.	35	5	30	30			

A.Z. Arreta zuzena **L.P.** Lan Pertsonala edo koordinazio eta material prestaketa

	Jardunaldi mota		Atera naiteke?	
	Jarraia	Zatitua	Jarraia	Zatitua
HLE ZHI	X 30 minutuko atseden aukera	X	30 minutuko atsedenean	Etenaldian
FISIO. OT	X 30 minutuko atseden aukera	X	30 minutuko atsedenean	Etenaldian
GL TRANSKRI.	X 30 minutuko atseden aukera	X	30 minutuko atsedenean	Etenaldian

Taula hauek lanaldi osoari egiten diote erreferentzia. Lanaldi erdien kasuan, ordu kopuruen erdiak izango dira eta jardunaldia jarraia.

Lanaldia eta lan-egutegiari dagozkien aldaketak 2025eko irailaren 1etik aurrera sartuko dira indarrean.

30 MINUTUKO ATSEDENA

"Ikasleekiko arreta zuzenekoa ez den orduaren barruan 30 minutuko denbora ez ordaindua izan dezakete. 30 minutu horiek arreta zuzeneko orduetatik kanpo berreskuratu beharko dituzte zentroan."

- Jardunaldi jarraia dutenek.
- Aukerakoa.
- Zentroaren beharrekiko bateragarria bada.
- Zuzendaritzaren oniritziarekin.

Arreta zuzenekoa ez den ordua = Lan pertsonaleko ordua

1. Eguneko jarduna hartu eta lan pertsonalerako ordua ordu erdiko bi alditan banatu. Ordu erdi batean L.P. egingo da eta beste ordu erdian atsedena.

2. Atsedena egiteko hartu dugun L.P.-ko ordu erdi hori jardunaren hasieran edo amaieran sartu.

   Adibidea:



OPORRAK

> "Zerbitzuan emandako urte oso bakoitzeko, hogeita bi egun balioduneko opor ordainduak hartzeko eskubidea izango da (edonola ere, gutxienez hogeita hamar egun natural), edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien egunak."

Abuztuan bajan, gurasotasun baimenean… bagaude, orain bezala, 30 egun natural berreskuratuko dira (abuztukoak).

Zer aldatzen da?

1. Sortzen ditugun opor egunak:

	Sortzen ditugun opor egunak	
Adibideak	2004ko Hitzarmena (45 opor egun)	Hitzarmen berria (30 opor egun)
100 lanegun	12.5 opor egun	8.33 opor egun
200 lanegun	25 opor egun	16.66 opor egun
300 lanegun	37.5 opor egun	25 opor egun

2. Opor egun horiengatik jasoko genukeen diru kopurua:

	Diru kopurua			
Kolektiboa	Indarrean dugun hitzarmena		Hitzarmen berria	
	Urteko soldata	Opor egun bakoitzeko ordainketa	Urteko soldata	Opor egun bakoitzeko ordainketa
HLE ZHI TRANSKRI.	31.239,71 €	31.239,71 € / 360 = 86,77 € opor egun bakoitzeko	35.735,55 €	35.735,55 € / 360 = 99,26 € opor egun bakoitzeko*
FISIO. OT GL	38.504,52 €	38.504,52 € / 360 = 106,95 € opor egun bakoitzeko	38.504,52 €	38.504,52 € / 360 = 106,95 € opor egun bakoitzeko

* Hiru kolektiboren soldata igo egiten denez, sortutako opor egunengatik jasoko duten diru kopurua ere igo egiten da (2026an emango litzateke egoera hau).

ADI! Kalkulu hauek orientagarriak dira.

ORDEZKOEN PRESTUTASUNAGATIKO ETA MUGIKORTASUNAGATIKO KONPENTSAZIOA

Atal hau jada adostua dago baina, ordezkoen araudian dagoenez jasota eta araudia negoziatzeke dagoenez, berriro negoziatu dezakegu.

1. Konpentsazio ekonomikoa

Baldintzak:

- Ordezkapenengatiko bitarteko lan modalitatean lan egin izana.
- Ordezkagunearen esleipenetan ohikotasunez parte hartu izana.

  Betekizun hau betetzen ez dela ulertuko da baldin eta 50 egun balioduneko epean egon bada Ordezkagunean parte hartu gabe Ordezkagunea martxan egon den bitartean justifikatutako arrazoirik gabe.

Baremoa:

Ikasturtean egindako lan-egunak	165-192	193-220	221-248	249-275	276-300
Konpentsazioa	6 egun	7 egun	8 egun	9 egun	10 egun

2. Puntu gehigarria zerrendetan

Ikasturtean zehar 165 egun edo gehiagoko zerbitzua eman duten aldi baterako lan-kontratudun hezitzaileek, ordezkapenengatik edo ekoizpenaren arrazoiengatik, puntu gehigarri bat lortuko dute hautagaien zerrenden birbaremazio-prozesuan.

IRTEERAK

- Hezkuntza Laguntzako Espezialistak eta Zeinu Hizkuntzako Interpreteak.

  Nola konpentsatuko da? Ikastetxean gainerako langileei aplikatzen zaizkien neurriak aplikatuko dira.

  Neurririk ez balego: gau bakoitzeko egun bat hartuz ekaineko klaserik gabeko aldian. 3 eguneko gehienezko muga.

Ikasturte hasierako jarraibideetan zehaztuko da ikastetxeak antolatutako jarduera osagarrietan laguntzeko beharra, gaua igaro zein ez.

LAN-METAKETAK: G10 + LPZAN SARTZEKO KONPROMEZUA

2004ko hitzarmena	Hitzarmen berria
Gehienezko iraupena 6 hilabete	Gehienezko iraupena 10 hilabete
Bakantea bihurtzeko asmo / konpromezurik ez	Beharra hurrengo ikasturterako mantentzen bada, lanpostuen zerrendan sartuko da (LPZ); lanpostu bakantea bihurtuko da

LAN ESKAINTZA PUBLIKOAK (LEP)

Hiru urtean behin, Lan-legepeko hezitzaileen kategorietarako lanaldi osoko plazetarako hautaketa-prozesuak deituko dira.

BIZITZA PERTSONALA, FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO LIZENTZIAK ETA BAIMENAK (GURASOTASUN LIZENTZIA)

2004ko hitzarmena	16 aste	**+2** haurra jaiotzean kontratupean egonez gero	
Hitzarmen berria	**Legeak aurreikusten dituen asteak**	**+2** haurra jaiotzean kontratupean egonez gero	**+2** borondatezko asteak jarraian hartuz gero

ADOPZIO EDO HARRERA KASUETAN NAHITAEZKO TXOSTENAK EGITEKO BAIMENA

Adopzioaren edo harreraren, edo adopzio-helburuko zaintzaren kasuetan, nahitaezko informazio eta prestakuntza saioetara joateko eta egokitasun adierazpenaren aurreko nahitaezko txosten psikologiko eta sozialak egiteko, lanaldiaren barruan egin behar badira.

- Behar den denbora. Astean 4 ordu gehienez.

NORBERAREN EGINKIZUNETARAKO BAIMENA

2004ko Hitzarmena	Hitzarmen berria
Behin-behineko langileek eskatu ahal izateko baldintzak: 1. Gutxienez urtebeteko zerbitzu aldi pilatua. 2. Gutxienez 6 hilabeteko zerbitzu pilatuak indarreko ikasturtean. Ikasturteko kontratu bat izanez gero, bigarren baldintza hori betetzen dela ulertuko da.	Behin-behineko langileek eskatu ahal izateko baldintzak: 1. Gutxienez urtebeteko zerbitzu aldi pilatua. 2. Gutxienez **4 hilabeteko zerbitzu pilatuak** indarreko ikasturtean. Ikasturteko kontratu bat izanez gero, bigarren baldintza hori betetzen dela ulertuko da.

50 ORDUKO BAIMENA

Baimena automatikoki berriztagarritzat jotzen bada, ez da beharrezkoa izango beste eskabide bat egitea, ezta justifikazio-dokumentazioa berriro aurkeztea ere.

HITZARMENEAN TXERTATU DIRENAK BAINA, JADA, APLIKATZEN ZAIZKIGUNAK

8 Asteko baimena

Seme-alabak edo harreran urtebetetik gora hartutako adingabeak zaintzeko guraso-baimena:

- Zortzi urte bete arte.
- Eskubide indibiduala eta eskualdatu ezin dena.
- Jarraian edo aste osoka.
- Lanaldi osoa edo partzialean.
- Ordainketa indarrean dagoen araudiaren menpe.
- 15 egun lehenago jakinarazi.

Urgentziazko 4 egunak

Langileak eskubidea izango du lanetik alde egiteko ezinbesteko kasuetan, senideekin edo bizikideekin lotutako premiazko familia-arrazoiengatik beharrezkoa denean, gaixotasuna edo istripua dela eta berehala joan behar duenean:

- Gehienez urtean 4 egun.
- Ordutan har daiteke.
- Huts egitea justifikatu egin behar da.

Odola eta odol-osagaiak emateko baimena

- Behar beharrezkoa den denbora hartuko da.
- Aldez aurretik justifikatu behar da ezinezkoa dela dohaintza lanorduetatik kanpo egitea.

Eliteko kirolarientzat baimena

- Goi-mailako kirolariak nazioarteko lehiaketa ofizialetara eta lehiaketa horiek prestatzeko kontzentrazioetara joateko.
- Eskaera gutxienez zazpi egun baliodunekoepean aurkeztu beharko da.

Seme-alabak medikutara eramateko

- 12 urtetik beherako seme-alabei kontsulta medikoetara laguntzeko.
- Lanorduetatik kanpo egin ezin bada.
- Kontsultara joateko behar den denborarako.

  Hilean lau ordu gehienez.
- Justifikatu egin behar da.
- Zuzendaritzak onartu behar du.
- Ez da ordezkatuko.
- Hilabeteko epean berreskuratu.

SOLDATA IGOERA

Norentzat?

- Hezkuntza Laguntzako Espezialistak.
- Zeinu Hizkuntzako Interpreteak.
- Transkribatzaileak eta Material Egokitzaileak.

Zer suposatuko du?

- Urtean 35.735,55 €-ko ordainsari gordina.
- 4.495,84 € gehiago urtean, % 14,39ko igoera.

Nola gauzatuko da?

- 2025 urtean (ez dugu data zehatzik) % 60a.
- 2026ko urtarrilean, gainerako % 40a.

Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileak
Lan hitzarmenaren aldaketa
esanguratsuenak